

1. BALOREZKO PROPOSAMENA

Gure enpresak hainbat irtenbide eskaintzen dizkio ohiko etxe bati. Etxe bateko aurrezki orokorraren kontsumoa nahiko handia da, eta horregatik laguntzen diegu familiei kontsumo hori murrizten. Eguneroko bizitzarako behar den elektrizitatearen zati handi bat **eguzki-plakek eta errota eolikoak** sortuko lukete.

Aisialdirako gun e berri bat izatea lortu dugu; gure teilatu-modeloetako bat edukitzean, lorategi txiki eta eroso bat ere jartzen da, eta bertatik bista bikainak ikus daitezke, etxebizitzaren goialdean baitago. **Lorategi** hori hainbat zatitan bana daiteke; horietako bat lorategia bera da, eta beste bat **baratze ekologikoa**, *0. kilometroko elikagaiak ekoizteko* erabiltzen dena. Lehen esan dugun bezala, bestea lorategia izango litzateke, familiaren aisialdirako espazio gisa erabil daitekeena eta bebai aisialdi ozio-kulturalarako. Horretaz guztiaz gain, landaredia landatzeko aukera ematen duen berdegunea izatean, oso lagungarria izango litzateke planetarentzat airea garbitzeko, eta hori da gaur egungo beste arazo handienetako bat. Gure teilatuek lurzorua mailan zegoen flora guztia altuera handiagora igotzea proposatzen dute, gure planetetan ahalik eta lurzoru berde gutxien galtzeko.

Bildutako eta arazutako urak, ureztatzeko eta etxebizitzan erabiltzeko balioko luke. Ondotxo dakigunez, ura baliabide mugatua da, eta, gaur egun ura gaizki erabiltzen denez eta hondakinak sortzen direnez, kutsaduraren ondorioz, ur-erreserbak erortzen ari dira. Gure teilatu-modeloak euri-ura birziklatzea proposatzen du. Ura bildu, biltegiratu, garbitu eta etxebizitza osoan banatzen da. Ur hori higienarako, garbiketarako eta abarretarako erabil liteke. Etxebizitza dagoen leku geografikoaren arabera, komeni da ur korrontearen gehigarria ekartzea.

